

Zeruko ARGIA

IDAIZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426866 - PREZIOA 7 PEZETA

JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA

Euskal esku-langintzaz eta inauteriaz jakintsu Esku-langintzak galduko dira, inauteriak biziko

Gizon atsegina da benetan Juan Garmendia. Erraz igarotzen dira orduak onen ondoan. Irekia eta zabala dela ikusteko INAUTERIA liburua irakurri besterik ez dago. Ain setatsu zatituak gauden idazkera arazoa aztertu besterik ez dago. Ez Satrustegik izan du itzaurrea egiteko gupidari. Ez egileak izan du bildurrik beste idazkera bateko idazleari sarreara eskatzeko. Inoiz baino bearrezkoagoak ditu une biurri ontan Euskal Erriak onelako gizonak. Patxada eta zentzia galdurik bait gabiltza.

Dena den tolosar idazle jator onengana jo dugu Tolosako iauteak direla eta. Dendan ari da lanean. Baina ez dirudi beti dendan jarduten duenik. Noizbait ateratzen du irakurtzeko eta idazteko beta ere. Oso jantzia dago etnografiaz. Euskal esku-langintzari buruz egin du lanik geiena. Ezagunak dira gai oni buruz «Diario Vasco»-n idazten dituen lanak. Baita AUNAMENDIK atera dizkion EUSKAL ESKU-LANGINTZA izeneko lau liburua ere. Badu an eta emen argitaratutako beste zenbait lan ere. Ez dezakegu aaztu Federiko Zabalarrekin batera egindako Tolosako Erriaren kondaira, besteak bere.

Iztun egokia da Juan Garmendia. Utz dizaiogun bada izketan.

—oOo—

—Egia bat aitortu bearrean nauzu, Joan, asiera asieratik. Iauteriak oso txarrak zirela ikasi nuen ikastetxean eta orko pekatuen barkamenerako otoitz egiten jarduna naiz txikitari. Ez dut gainera bein ere inauteririk ikusteko zoririk izan nere biztan. Beraz ume txiki bati bezala dena agertu bearko didazu.

—Bai, bai. Ni dakidan guztia esateko prest nago. Ez naiz bat ere arritzen. Nere andreari ere beste orrenbeste gertatu zitzaion. Tolosarra izan arren ez du garai aietako inauteririk ezagutzen. Kolejioan sartuta egon bear izaten zuten. Neroni ere gaitzotzat joa izan nintzen gaztetan, inauterietan parte artu nuelako. Badakizu, beste garai batzuk ziren. Jendea oso estua zen. Elizgizonak areago. Zuk esan didazun auxe bera esan zidan andrean Satrustegiri itzaurrera eskatu bear niola adierazi nionean. «Apaiz bati eskatu bear al diozu? Ez al da naiko gai biurria?». Baina oso pozik artu zuen lan au. Orduan ere ez zren denak oso estuak. Bazen gizon zabalik. Tolosako erretore, enskaldun ospetsu, eta Euskal-enskaldunak buruordeko zen Patrizio Orkaiztegi. Garizuma santuan jendea plazan dantza ari zela eta ura debekatzeko eskatuz joan zitzaion talde bat. «Jarrai dezala. Ez du gaitzik» erantzun zion. Geroztik asko aldatu dira gauzak.

—Zuk idatzi berria duzun liburua dela eta itzaldi bat eratu izan da asteartez, Otsailaren 27an. Zer moduz joan zen?

—Joxe Mari Satrustegi eta Jabier Bello Portu izan ziren izlariak. Oso egoki jardun zuten. Jendea arriturik utzi du Satrustegiren enskerak. Jende asko zen. Aretoa

lepazurreraino bete. Oso jende ezaguna ere ikusi nuen: Federiko Zabala, Antonio Labaien, Uxola, Antonio Zabala, Joxeba Intxausti, Jon Oñativia, Juan San Martin, Pelay Orozko, Inaki Linazasoro, L. P. Peña Santiago, Sebastian Intxausti... Orain aaztu zaizkit baina jende ezagun asko ikusi nuen. Amarren bat elizgizon ere ikusi nituen.

—Biotza geienik zerk unkitu zizun?

—Dena entzun nuen oso pozik, baina aparteko grazia Jabier Bello Portu esan zuenak egin zidan. «Emen gaude inauteriaz itzegiten elizarekin lotutako iru gizon. Bat apaiza: Satrustegi jauna. Juan Garmendia: elizarako kandelak egiten jarduten zenuaren semea. Eta ni elizondoa bizi eta korutik atera gabe ibili naizen gizona, apaiz batek baino elizkizun geiago egin dituen gizona».

—Aitortu dizut ume ezjakin bat naizela. Esaidazu zertxobait INAUTERIAZ.

—Ez da itza bera berdin erabiltzen leku guztietan: Inauteri, Aratuzte, Karnabalak. Ikusi besterik e dago Aita Larramendiren erdal-enskaldunak Iztetgia. Antrujejo, inoteria, aratuztea, zantantzartak agertzen dira gauza bera adierazteko. Neguan, udaberrira arte egin oi ziren jaiak ditugu. Ez ziren eta ez dira erri denetan egun berean egiten. Tolosa eta Lantze dira egun berean ospatzen dituztenak. Jakina, alde aundia dukete gaurkoak eta orain dela 600 urtekoak.

—Ez dira noski berdinak izango



erri txikitako eta uri aunditako inauteriak?

—Erri aundi, baserri girorik gabekoetan, Karnabalak, argi ugariz, gundi apañez eta moztorro-taldez ongi ornituak izaten dira noski; baiña, agian, itxura aundi eta guzti, kaleko inauteri auk ez dute menditarrenak ainako jatorrasunik. Uriko inauterik, burruka bizian irau bear izan dute urteak zear, baina oraindik ez dituzte galdurazi, sarritan geuk ezagutu izan dugun elizako erasoak, ezta Agintariek leuntzeago-zorrozeago eman dako debekunak. Leengo biziera gaurko bizimoldeari egokitzen ez jakiteak izkutarazi ditu, uritar Karnabalak. Berez galdurazi bada. Euskal Erriaren ordea, badugu bat oraindik ere, gerta alak gerta, bizirik diranena: Tolosakoa, alegia, Quinquagesima Igandez—Zaldunitaz—ta Astelenita, Asteartitaz aundikiro spatzten dena.

—Noiz eta nola asiak direla uste

NON ZER

- OLERKI ETA ILUNPE
Larresoro 3 garrenean
- ZULOAN ERORIAK
Atxaga 3 garrenean
- EGUN EGUNEKOA
Ibargoiti 3 garrenean
- AUTESKUNDEAK NOLA ERATU
Elustondo 5 garrenean
- 25.000 PEZETAKO ZIGORRA
ZERUKO ARGIAri 6 garrenean
- MUSIKA BERRIAZ HIRUGARREN
ASTE
Ansorena 7 garrenean

geldiro geldiro kaleratuaz joango ziren. Eta emengo biziera berriak, oitura berriak sortuko zituen.

—Beste non dira sonatuak inauterietak?

—Leku guztietan ospatu dira arrakasta aundiz. Baina leen esan dizudan bezala ia denetan galdurik dira. Lantze, Ituren eta Zubietakoek dirante oraindik indartsu. Sona aundia artu dute eta jende asko joaten da kanpotik gun oietan inauterietara. Urtetako bizia daukate jai oiek oraindik erri oietan.

—Ederki, Joan. Baina inauterietak utziaz zuk asko landu duzun alderdi ortara jo nai nuke. Zuk euskal esku-langintzaz asko dakizu eta asko idatzi duzu. Nondik duzu onelako gogoia?

—Giro ortan jaioa nauzu. Esku-langileak ziren nere etxean. Kandelak, atxoiak eta txokolatea egiten ziren nere etxean. Langintza ortatik bizi izan ginan. Gogozko lana dut beraz ori guztia ikustea, ikastea eta arakatzea.

—Ia erabat izkutatutik egongo dira noski esku-langintza aukerak?

—Bai. Orregatik nabil zearo galdu baino leenago gauza auk denak jasotzen. Jakin dezatela ondorengoek gure esku-langintzaren berri. Lau liburu idatzi ditut ortaz. Ez noa an bilatuko duzuna esatera. Orain Arabakoa egiten ari nauzu. Arriturik nago zearo. Galdurazi dago langintza au. Uztargile bat bakarra aurkitu dut: Uribarri-Aranan ain zuzen ere. Baina apa-indurirako eta dotorezirako bakarrik egiten ditu uztaerriak. Toki menditsu auetan oraindik iraungo du uztaerriak. Baina dagoaneko galdu da Arabako ordeketan. Santa Cruz de Canpezo-n ere onelako aztarna asko aurkitu dut: txibak, eiotalu, eta zaagi zuloak konponitzeko zurezko adabakiak egiten ziren etxeak. Zoketak egiten zituzten zoketeroak, kutxareroak eta abar...

—oOo—

Pozik jarraituko nuke zurekin kontu kontari baina zuri ere deika ari zaizkizu dendara eta nik ere beste lan asko dut gaurkorako eta joan egin bearko dut. Ondo igaro ditza zuela tolosarrok aurtengo inauterietak. Eta au jakin bezate irakurleek, neri leengo urtean gertatua gerta ez dakien. Nik leengo urtean Tolosako sarrerako zubian ordu bete geldirik egon bear izan nuela jendea kalean salto eta brinko zebilelako. Egun oietan Tolosara, inauterietara joan bear da, eta ez autoz kaleko jendea naastera.

ERRIALDE

Nere Bordatxotik

Gaur, igandea, epailak (mar-txoak) amaika, "Endañeta" ta "Aretxa" lenengoa aurrez-aurre, Azkoiti'ko pelotalekuan.

"Endañeta" erabiliko duen arria. 150 kiloko kubikoa, esku ezkerrekin baliatuz.

"Aretxa" erabiliko duen arria: 150 kiloko zilindroa, esku eskubiarekin baliatuz.

"Urtain"ek, Igeldo'n, esku bakarrarekin amar arruako kubikoa bizkarreratu zuela lenengoz entzun genduenan, arri ta zur geratu gihan.

Egia ote da gero?, galdetzen genion genre buruari.

Mingain luzetxoaz ez ote da-rabilki jendeak?

—oOo—

Amar arruari erantsi akizkio-tzute beste bi arrua: amabi arrua dira.

Ta, amabi arruako kubikoare-kin azalduko zaigu "Endañeta" Azkoiti'ra.

Esku bakarrarekin jasotzera; al duenik jasoaldirik geien ematera.

Iru oztopo ikaragarri dauzka gainditu bearrak.

Lenengo oztopo: 150 kiloko puska izatea.

Bigarren oztopo: arri kubi-koa izatea.

Irugarren oztopo: esku bak-arez baliatu bear izatea, bes-tea apaingarritzat bezela artu-rik.

Konturatzen al zerate au guz-tia zer dan?

—oOo—

Eztegu "Endañeta" bakarrik aitatu bear.

Meritu izugarriak ditu bere-kin "Aretxa" sondikatarrak.

Ba-dakigu kubikotik zilindro-ra arrigarrizko aldea dagola: ibaitik itxasorainokoa, esate ba-terako.

Zenbat dira, ordea, amabi arruako zilindroa esku bakarra-ekin bein bakarrik jaso leza-ketenak?

Esku biak libre emanda ere, ez pentsa asko izaten diranik.

Indartsu usteko makiñabat gazte eder geratu izan da ama-bi arruakoa jaso gabe. Bearko gainera!

1972'garren urteko abendu-aren 29'garren egunean egin zu-ten joko au, Eibar'ko Bar "Agi-nazpi'n".

—oOo—

Ekiñaldi edo tandak: iru zaz-piña minutuko.

Irabazlearen saria: ogei mi-lla duro.

Dirujasotzailea: Txomin Mandiola, Bar "Aginazpi'ko" nagusi jauna.

Norgeiagoka onek izan leza-ken atzerapenik aundiena ama-bost egunekoa da, norbait gai-xotu edo zauritu ezker.

Atzerapena eskatzen duenak, eguneko milla peza pasa bear dizkio beste aldeari.

Eguardiko amabietan erasoko diote lanari. Ala azaltzen da beintzat kontratu paperean.

Gaur zortzi, Jaunak ala nai badu, Zeruko Argia'ren irakur-leak emen aurkituko dituzte Azkoiti'ko goraberak.

Poz atsegiñez emango degu ikusten degunaren berri.

—oOo—

1973'garren urteko otsaillaren ogeitabosgarren eguna.

Munduko gizonik alaiena ne-garrez ikusi genduen kantatzen, Añorga'n Mattin bertsolaria zan.

Aitaren biotzak kantatu zuen, eta bai entzuleen biotzetara iri-txi ere.

Bere denboran sekula etzuen txalo zaparrada beroagaroki en-tzungo gure lagun zintzoak.

Mattin'en bertsoak entzuten geundela, bere gordintasun oso-an agertzen zitzaigun euskal ba-serriaren arazo edo problema.

Ezta Gipuzkoa ta Bizka'i'ko problema bakarrik, Euskalerrri guztikoa baizik, nola Bidasoaz aruntz, ala onuntz.

—oOo—

Seme bakarra izan eta argan jarri itxaropen guztiak.

Zenbat amets gozo etzuten egingo Mattin'ek eta bere emaz-teak etorkizunari buruz!

Ta, egun batetik bestera, bes-te lantegi bat naiago zuela ba-serriko lana baiño.

Ain maitea duten semeari ezin galerazi bere naiia egiten.

Aita ta ama bakar-bakarrik orain baserriari eusten.

Urtetan aurrera, ta etorkizu-nik ikusten ez.

Zer tristeagorik?

—oOo—

Eunka baserritan ari da ger-tatzen auxe bera Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n.

Etzerik onen eta aberatsene-tan ere bai.

Gazteen besoetan zarren itxa-ropen dana, ta gazteak kalera-ko bidea artu.

Baserriarekin ezutela ezer jakin nai.

Akabo aita-amen poz eta alaitasunak!

Urtetan aurrera ta bazterra-ri eusterik ez.

Semeak aldegin eta morroi-rik iñun billatu ezin.

Onek zer adierazten du?

Baserriaren eriotza. An ez-pada emen, egunero ikusten ari gerana.

Nola etziran beteko malko lodiz Ahetze'ko bertsolari ar-giaren matraillondoak, ain mai-tea duen seme bakarra gogora-tuz eta etxeko bakartasuna oroitzuz?

Nork bete ark utzitako utsu-nea?

Alakorik pentsatu gabe, Pa-ri's-en zuen semeari iru bertso kantatzeko agindu zion Aranal-de jaunak.

Estuasun ura igaro bear zue-la jakitera, beste zerhait auke-ratuko zion.

Egin zuena besterik etzeza-kean egin une artan Mattin bertsolariak.

Gainontzeko danak sobre dau-de biotzak itzegiten duenean.

Eta zabala izan Mattin ber-tsolariaren biotza.

Seme bakarra izan eta bera urutian duen aitaren biotza.

BASARRI



YOGUR

GURELESA

GOGOZKOENA



1973' garren urteko
lenengo zozketa

miñoi bati
pezeta

diru
aurera-
tze
saritan

diru sartze-epea,
jorrailla'ren 7'a arte

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI



Donosti'ko
Erri-Etxe'ko Curreerki Kutxa

Edozein Librefetan sartzen diran milla pezeta berri bakoitzeko zenbaki txartela izango dezu eta Libretan dauz-kazun 5 milla pezetakorik aña zenbaki dagozkizu gañera.

AUTESKUNDEAK NOLA ERATU ANTOLAKETAREN GARRANTZIA

Kezka bat sortu zait. Bosgarren orri alde onetan, azkenaldi onetan, auteskundeetaz eta batipat Frantziakoaz asko idatzi da. Auteskunde orien jokoa adierazi nahi izan da: ezkerak irabaziko al du? eskuiak erdikoekin beste gobernu osatuko al du? Orrelaxe, galdera asko egin da. Baina, auteskundeak berak nola molda edo eratzen diren ez da adierazi. Eta egia esan, auteskundeen mekanismoaz edo auteskundeak egiteko eraz oso gutxi ote dakigun beldur naiz. Enekiko, ordea, auteskundeak ulertzeko orren berri izateak garrantzia andia du.

Sondeoak edo nolabait esateko, iritzi-miaketak direla eta auteskundeentz antolaketaz berri izateak are eta garrantzia andiagoa du. Gutxi gora behera %ko 47 pertsonak beren botoa edo autarkia ezkerrekoiei emango zirela adierazten zuten direlako iritzi miaketa oriek. Ezkerreko partiduek, beste ezeren okerrik ez bada behintzat, %eko 47 diputadu izango dituztela, beraz, pentsatu dezake batek. Oker dabil orrela pentsatzen duena. Autarki edo boto oriekin erdiak baino diputadu gehiago ateratu daitezke baita erdiak baino askoz gutxiago ere ordea. Auteskundearen antolaketan datza arazoaren karkoa.

Frantzia, De Gaullek nahi izan zituen bezala daude auteskundeak eraturik. 1958. urtean ezarri zuen erakunde au. Arrez gero gauza askorik ez da aldatu. Frantziako auteskundeak, nolabait esateko, lekuko izen bakarrikakoak, bi alditakoak eta maioriazkoak dira. Ulergaitz den esaldi au esplikatu dezadan.

LEKUKO IZEN BAKARRIKAKOAK

Frantzia, autarkia edo botoa pertsona baten alde bakarrik eman daiteke. Txartelean pertsona baten izena bakarrik ezarri behar da. Gerra aurrean, autarkia edo botoa eman ahal izan zutenak, gure inguru autan orrela ez zela egiten ederki oroitu dira. Garai aretan, gizon bati baino gehiagori ere eman zekioren autarkia. Txartel batetan lau edo bost gizonen izena arki zitekeen. Frantzia, esan dudanez, pertsona bat bakarrik eman dakioren autarkia.

Bestalde leku bakoitzak gizon bat izango du bere ordezkari. Leku bat esan dut eta ez dut iri edo probintziarik esan. Adibide bezala jarri dezagun Gipuzkoa eta egin dezagun 6 zatitan banaturik arkitzen dela. Zati bakoitzak diputadu bat autatu behar duelarik, bere lekuko kandidatoei eman dezaioke autarkia. Izan ere leku edo zati bakoitzean gizon desberdinak dira kandidato nahiz eta partido politikoak berdinak izan. Eibar eta inguruetako kandidatoak batetik eta Donostiakoak bestetik ez lirake gizon berdinak edo kandidato berdinak izango.

Gerra aurrean, gure artean ez zen ordea orrela izaten. Oker ez banago, Gipuzkoak sei diputadu aukeratzeko zituen. Diputadu izateko kandidato asko izaten zen. Kandidato orien artean batek gogozko zituen bost edo sei aukeratzeko zituen. Eibarkoek eta Donostiakoek gizon edo kandidato berdinak zituzten aukeratzeko. Gipuzkoa ez zen zatitua Frantziako antolaketarekin egongo litzakeen bezala. Orduan Gipuzkoak bat izanik aukeratzeko zuten. Oraingo onetan seitan zatiturik eta zati bakoitzak bere nortasunak izanik aukeratzeko luke.

Zatiketa ori nola egiten den dago ordea koska. Zatiketa orren bidez zapuzkeriarik egin daiteke eta egiten da. Frantzia bada orrelakorik.

Hautes-Alpesen, Frantzia, bada leku bat 26 bat mila boto emaile dituen; nekazari eskualdea da. Onek diputadu bat autatzen du. Baina bada beste bat Essonne eskualdea, 120 milaren bat autarki

emaile dituen. Eskualde onek beronek ere diputadu bat bakarrik autatzen du. Badago, beraz, alde ederrik. Bateko bost balio du nekazariaren autarkiak.

Ikus dezagun adibide onen esanahia. Iritzi miaketak dionez, ezkerrek %ko 47 autarki jasoko du. Ori esatean ez da ordea lurraldea gogoan izaten. Egin dezagun nekazari eskualdean, delako Hautes-Alpes orretan, eskuiko kandidatoak irabazten duela 14ren bat mila autarki izan dituelako. Egin dezagun beste lurraldean berriz ezkerrekoak irabazi duela 70 mila boto izan dituelako. Bi eskualdek diputadu bana autatu dute baina oso autarki desberdinez. Bi eskualdetako autarkiak zenbatuko bagenitu ezkerrekoak %ko 50 autarki baino gehiago izango litzuke. Baina orra, kasu onetan, diputadu bat besterik ez luke lortuko.

Gobernuak gauza au oso gogon izan du. Badaki bai eskualdeak nola zatitu. Langileak bizi diren eskualdeak andiagoak dira besteena baino. Ezkerreko partiduek beraz autarki gehiago behar dute diputadu bat aukeratzeko. Azaldu dudan bezalako adibide nabarmenik besterik ez egon arren aldepika bat duten eskualdeak badira ordea. Orregatik, %ko 47 autarki izan arren ezkerrek ez ditu diputaduak ein berdinean izango.

MAIORIAZKOAK ETA BI ALDITAKOAK

Pertsona batek diputadu izateko %ko 50 autarki edo erdia baino gehiago behar du. Ori lortzea ordea ez da beharrezko bi alditan, lehenengoan baizik. Lehenengo egunean batek erdiak baino gehiago izaten baditu, diputadu egiten da. Gizon orren dema bukatu da. Ez du urrango igandean zer borrokaturik. Obeto esateko, eskualde edo leku orrek ez du elektorik izango. Bere lanak egin ditu.

Baina gerta daiteke eta gehienguan ala gertatzen da, aurreneko egunean inork ere maioriarik ez lortzea. Orduan zer gertatzen da? Urrango igandean berriz auteskundeak. Baina bigarren aldirian, bat kandidato izateko baldintza batzuk bete behar ditu. Bigarren aldirian, bat kandidato izateko derri gorrez aurreneko aldirian ere kandidato izan behar zuen. Baina aurreneko aldirian kandidato izatea ez da aski. Bigarreneko lehiaketan batek parte artzeko aurrenekoan gutxienez %ko 10 autarki lortu be-

harra daduka. Ori lortzen ez bada erretiratu beharra daduka. Orregatik aurreneko aldirian kandidato ziren asko erretiratu beharrean arkitzen dira bigarrenean.

Bigarren aldi onetan berriz batek diputadutzat lortzeko ez du maioriarren beharrik. este inor baino autarki gehiago izatea aski zaio.

Bigarreneko aldi onek izango du karargarriko garrantzia Frantzia. Ertzetako alderdien kandidatoek, eskuiko bai ezkerreko, ez dute %ko 10 autarkirik lortuko. Dema orduan, gaurko maioría, reformadore eta radikal-sozialista-komunista elkarteen artean izango da.

Arazoa argitzeko ezkerre ar dezadan adibidetzat. Aipaturiko iru alderdi orien artean elkarre bat dagoela osaturik, denok dakigu. Elkarre osaturik izan arren alderdi bakoitzak bere kandidatoak ditu. Aurreneko aldirian iruak jokatuko dira. Bigarrenean zer egingo dute iruak %ko 10 orietan badeute? Iruak berriz jokatuko? Baina sakabanaturik, bakoitza bere alde tik jokatzen bada ez al die eskuiak aurrea artuko? Ziur asko baietz. Orduan zer egingo dute? Erabakirik dadukate: iruetatik, aurreneko aldirian autarki gehiengua izaten duenak jarraituko du ezkerrean ordezkari bezala bigarreneko aldirian, beste biak erretiratuaz. Jorkoa eta batipat Mitterranden jorkoa orixe da, alegia, aurreneko aldirian, bere lagunak, komunistak baino autarki gehiago izatea. Orrela diputadu gehiago izango diti.

Baina bada beste arazo bat. Alderdi erabakia gauza bat da eta oso besterik jendearen jokera. Bigarren aldirian ezkerrean ordezkari sozialista bat izatea ala komunistak bat izatea oso alde andia dago. Sozialistari, iritzi miaketak dionez, askoz errazago emango dio jendeak bere autarkia komunistari baino. Zer egin orduan? Komunistak nahiz eta aurrenekoan sozialista baino autarki pizka bat gehiago izan, egokia al da berak aurrera jarraitzea diputadutzat es lortzeko arriskuan jarriaz? Ez al da obe izango sozialistak jarraitzea ezkerre irabazi nahi badu behintzat? Oraingoz ez dago erantzunik. akar bakarrik komunistak ez dade burua makurtzeko prest. Beren indarra ahultzeko gogorik ez dute. Beren eskubideak dituzte. Ikusiko dugu.

JUAN ELUSTONDO



NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega'ko Perira joan etorriak

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN-EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean Iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381
Aptdo. 1381

zure etxea

USURBILEN

sarrera

50.000 pezetan

ordainketarako erreztasun osoz

- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokienera aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiraletan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.º
- Ikus maketak aureski kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.

CSC CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA

AUZO-EGINTZA

Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutziak 426906-429942
DONOSTIA

C. A. P. a.º 186.527/3

25.000 pezetako zigorra

"Zeruko Argia"ri

Ale honen beste leku batean aipatzen dugun bezala, «Ministerio de Información y Turismo» delakoak joan zen urteko bi artikuluren gatik 25.000 pezetako zigorra ezarri digu. Ona hemen nola dion agiriak:

CONSIDERANDO: Que aun cuando en el pliego de descargos se difiere o evita entrar en el fondo de los cargos imputados, procede el estudio de los mismos, a efectos de su calificación, una vez comprobada la inexistencia de la incompetencia planteada y en este sentido puede afirmarse que basta la simple lectura de «Carta abierta a la Universidad de Navarra» (NAFARROKO UNIBERSIDADARI ESKUTIZ IDEKIA), inserta en el número 471 del día 12 de marzo de 1972, y del editorial «Iglesia vasca» (ELIZA EUSKALDUNA) difundido en el número 485 de 18 de junio de 1972, para apreciar que los conceptos, afirmaciones y expresiones que se vierten en tales carta y editorial, constituyen una falta de acatamiento a los Principios del Movimiento Nacional, en cuanto a la unidad nacional y espiritual de España; falta apreciada en las tesis sostenidas en cada texto, que consisten en proclamar y defender la necesidad de una Universidad y una Iglesia vasca en términos de acusada independencia.

CONSIDERANDO: Que en la titulada «Carta abierta a la Universidad de Navarra», se afirma que aun cuando en la de Deusto se hace poco para «unir al pueblo...» a «favor de Euskal-Erria» y para extender «el ambiente vasco entre los estudiantes de la Universidad», en la de Navarra, «todavía hacen menos». Aconseja a la Iglesia y a la Universidad que «no deben vivir al calor y dulcemente dentro de la situación» y afirma que «la Iglesia que no hace caso

del pueblo, no es Iglesia» y que el verdadero universalismo «tiene que aparecer amando la casa propia y amparando el Euskera» para terminar con el siguiente anatema: «Si no dirigimos bien Euskal-Erria, Cristo y el pueblo nos maldecirán». Tales frases y conceptos aunque aparentemente aparezcan como una defensa del vasco y de la cultura vasca, en realidad lo que se hace es utilizar estos elementos para configurar, la idea dominante, de un «pueblo vasco» Euskal-Erria, a quien la Iglesia y la Universidad deben darle lo «suyo», y no que vivan al calor dentro de la situación, entendiéndose como tal el marco jurídico vigente.

CONSIDERANDO: Que la tendencia al nacionalismo vasco que se aprecia en las ideas y conceptos expuestos en la carta abierta antes considerada, se confirman en el editorial la Iglesia vasca, donde con el propósito de «despertar a la superioridad» se alude a la «caciquería cultural y espiritual de la Iglesia», como denunciada en una reunión habida en Francia, por «soportar a Europa, Roma y el latín», en donde se acordó «que tiene que haber una Iglesia única pero desigual» y con esta base se propugna, de acuerdo con el significativo título, una Iglesia vasca, que no esté «mirando ciegamente a Roma», ya que «nuestra Iglesia en política-diplomática está atada completamente a Roma» y que la única intervención que se admitiría del Papa sería para mantener la unidad y después de afirmar que en

el «pueblo cristiano puro de Euskal-Erria... deben resolver ellos mismos sus problemas. La Iglesia vasca no debe ser delegada de Roma» y para conseguir estos fines se propugna la unión de los Obispos de Euskal-Erria.

CONSIDERANDO: Que por lo expuesto en los tres considerandos anteriores el comentario titulado «Carta abierta a la Universidad de Navarra» y el editorial «La Iglesia vasca» constituye una infracción del artículo 2.º de la Ley de Prensa e Imprenta, en lo que se refiere al acatamiento a la Ley de Principios del Movimiento Nacional y demás Leyes Fundamentales, concretamente al Principio IV de la citada Ley, en relación con el artículo 33 del Fuero de los Españoles, por cuanto con aquellos se atenta a la unidad nacional y espiritual de España.

CONSIDERANDO: Que en orden a la calificación de la infracción que se declara cometida, es de tener en cuenta lo prevenido en el apartado dos del artículo 68 de la Ley de Prensa e Imprenta, y en consecuencia debe calificarse dicha infracción como de carácter leve.

CONSIDERANDO: Que de dicha infracción es administrativamente responsable doña María Juana Azurza Aristeguieta, en su calidad de director de la publicación periódica «ZERUKO ARGIA» a tenor de lo prevenido en el artículo 39 del citado texto legal y sin perjuicio de cualesquiera responsabilidades que pudieran recaer sobre otras personas según la legislación vigente; debiendo declararse igualmente la responsabilidad solidaria a estos efectos de la empresa propietaria de la publicación.


CONSIDERANDO: Que según establece el artículo 70, uno, de la invocada Ley de Prensa e Imprenta, la competencia para corregir las infracciones de carácter leve corresponde al Director General de Prensa.

Por cuanto antecede;

Esta Dirección General de Prensa, a la vista de las actuaciones practicadas, ha resuelto imponer a doña María Juana Azurza Aristeguieta, en su calidad de director de «ZERUKO ARGIA», de San Sebastián, como responsable de una infracción administrativa de carácter leve del artículo 2.º de la Ley de Prensa e Imprenta, la sanción de multa de VEINTICINCO MIL PESETAS, prevista en el artículo 69, uno, a), primero de la indicada Ley.

EL DIRECTOR GENERAL DE PRENSA

Gipuzkoar lantegi txiki eta aundigoaren oiñarri sendoa



Lantegietarako diru laguntza

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL etxeak, industria egocera gogoan arturik LANTEGIAREN ALDE PRESTAMENAK eratu ditu lantegi txiki eta aundigoek eskura dezaten. Lantegi barruan makinaria aldatu bear duzula, lantegia eraberritu edo aunditu nai duzula eta kezkatu bazaude, zure lesaipiderako LANTE-

GIAREN ALDE PRESTAMENA antolatua dugula jakin ezazu. Zatoz eta inversioak zuzentzeko bear duzun zergitasun eta laguntzarik gure artean aurkituko duzu. LANTEGIAREN ALDE eratu dugun diru babes eta laguntzaren ondoren ikusiko dituzu.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



IMANOL LASPIUR-en OHARRA

Nere jaunok, agur:

Azken Zeruko Argian —Otsaileko 25.ean alegia— FALTA GENUENA izenpuzuz egin nuen artikulua kaskar hori egitera duzue. Eskerririk asko beraz.

Baina, hona hemen, aski ohitua garanez ere, onar ez dezakean trakeskeria egin didazue azken lerroetan. Honela jarri duzue:

«Bien bitartean aski dugula iruditzen zait batasun bidean sartuak ta trinko dadinean erabaki dezakete biharko gizalbatatuok. Garai honetan ez dezagun jendea gehiago izu».

Jaunak: moldiztegi horretan arreta gehitxoago jartzan ez badugu, irakurleok ero ditzakegu. Alde batetik zenbait lan (nere tarté dela) kaskarra baldin bada, begira zer gerta lezaiokeen irakurleari halako xelebrekeria bihurriak jartzan baldin badira inprimatzerakoan; areago, gurutzegramak egiteko astirik ez dugularik. Zergatik gertatzen da hau behin eta berriz Zeruko Argian eta ez hainbeste beste zenbait aldizkaritan?

Mesedez, argitaratuko bazenute behar den zuzenketa, benetan eskertuko zintuzket. Zuzenketa horrek honela behar du izan:

«Bien bitartean aski dugula iruditzen zait batasun bidean sartuak ditugun deklinabide, hiztegi, «h», aditz-joko eta abar bateratuok. Garai honetan ez dezagun jendea gehiago izu».

Hauxe da zuzena eta ez agertu zenuten ulerkaizkeria. Badakit presaka ibiltzearen edo zerak direna, baina horrexegatik behar genuke kontu gehitxoago.

Mesedez, orain arte baino oker gutiago egin ahal bazenezate gaingero, a zelako laguntza irakurlearentzat!

Nire esker eta agurririk zintzoenak zuzentzat.

I. LASPIUR

elgoibar

HITZALDIAK

Azaroan hasi zen marxismoari buruzko ikastaroa...

Ikastaro hauetara eta jendearen erantzunari zegokionez...

Jakingarriak ikastaro hauetan bildu geranonizat Roman eta Gotzonen erabili dituzten gaiak...

Marxen teoriaran oinarriturik zombait herrialdetan izan diren errentziai eta egoerak aztertuaz...

Elgoibarko semeak izanik eta bertako euskalkia ondotxo menperatua izanagatik...

Hitzaldi bakoitzaren ondoren, daretariko galderak joaten zitzazkien...

hizlari eta jabetasunez eta gaia ondo menperatuaz...

TXALOK ANTOLATZAILAI, IKASTARO HAUEK EUSKERAZ EMATERA AUSARTU DIRRELA...

BATZAR NAGUSIA

Iragan den Urtarrilean «Elgoibar-ko Izarraren» Batzar Nagusia ospatu zen...

Baita ere, aurtengo, presupuesto latza agertu zigun Agustin Gorostizak...

Andoren Juanjo Araolaza, orain go lehendakari, etorkizunerako diren asmo eta ekintzen berri emanaz...

Azkenik, autarki bidez lmanol Zabala aukeratu zen Lehendakari ordeko eta honek lagundu die batzordea osatzen.

Urruzunoren omenez izan diren jai-tartean, Udaletxeak eta Euskaltzaindiaren babesarekin...

sari bakarra, hainezagun den irakasle, abeslari, hizlari eta poeta trebe Aniton Aranburu izan dugu...

F. HARRI

herrera

ELIZA BERRIA

Hara, azkenean, Eliza berria Herreran! Hara eliza bihurtua lehen zine izateko zegoen gela...

Besterik ere bada: oso txukun eta eder omen dijoa eliza berri hori. Ez al da, nolabait esateko...

Gure hangoan badago deporte zaletasunik: korrikalari onak ditugu (Artola, Mixelena...), futbolista ere ez hain txarrak (Sporting...)

hamaikatxo ikusle bereganatzen zituena: esku-baloia. Igande eguerditan ondotoxo betetzen genduen gure plaza...

ETA PLAZA

Izan ere, aspaldian hemen izan ez den norbaitek honera etortzeko asmorik hartuko balu...

«CASAS SOLARIEGAS»

Lehen bagenituen holako batzuk aspaldiko Altzan eta inguruetan. Gutxi izangi ziren bai, baina bai politikak...

lekuko ikusgarri. Arte gauzetan norbait direnak ondo maitatzen dituzte horrelako ale bakanak. Dirudun eta etxegileek ez hainbeste...

IZEN PROPIOAK

Nor ez da Hermano Pedroz goratzen? Zein herreratator jator ez da harren klasetik pasa? Nork ez du ikusi elizaren organoan eseririk...

JO-GU-KAR


JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN URTIETAN LAN OIETAN OITUA BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK DONOSTIA Hernani, 4

Bankaetxe on batek arazo asko koponduko dizkizu. Zenbat eta eskurago orduan eta errezago. Banco Guipuzcoano gertuan daukazu, zure zerbitzuan prest eta gogotsu. ZURETZAT

NEKAZARITZA AN ETAK EMEN

Jose Alkiza

Esnearen prezioa



Esnea bildu bai zenbatean saltzeko?

Garai ontako kezakaberik aundiena, baserriarren artean, esnearen prezioa da. Amaikatxo itz atera ez du. Aurreraxegotik asita bazeziltzan zurrumurrak: igoko zutela... ez zala garestituko... merkatu egingo zala... danerikoak ugari, bakoitzak bere iritzia ematen baitzuen.

Azkenik otsailaren 23an «Consejos de ministros» delakoan erabakia dute, martxoaren aurretik esnea zenbat ordaindu behar dan.

Beste ezertan sartzerako, esan behar dizut, irakurle, zu esnea litro banaka, kalean etxer salten duten ojetakoa baldin bazera, zuretzako ez dutela ezer erabaki eta agindu delako «Consejo de ministros» orain, zuzen zuzenean behintzat. Segi zenezake nahi duzun prezioan esnea saltzen bezeroak zuk eska ala guztia ordaintzeko prest daukazun arte.

Etixerik etxe partitze orrekin gustora bazaude... ez ditezela zutaz luzaroan gogoratu. Obe duzu. Sistema ortan saltzen dutenekin gogoraztean, erabaki bat bakarrik artuko bailuteke: galerazi. Ez, prezioa altxa, jaxki edo izendatu; baijiz-eta baserriarrek berak kalean-zuzenean saltzea debekatu. Orixe dago egiña erri aundirik gehienetan. Eta bistakoa da, zuri ala ez iruditu arren, badirala ortarako arrazoi bortitzak.

Bestalde, ohar zaitez, zure esnearen prezioa ez duzula zuk markatzen, ezta zurekin batera kalean saltzen duten baserriarrek ere, ezta zure artzailleak ere. Probintziko baserriarrik gehienak, zentralen batera biatzen dutelako, sal dezakezue gaur kalean esnea, saltzen duzuen prezioan.

Jokatuko nioke edozein, gaur esnea saltzea libre daukaguen Euskal Erriko edozein erritan, denik eta aundiena bada ere, beste 100 baserriar, gaur esnea zentralen batera eramaten dutenak, kalean saltzen asiko balira litroko 10 peztan, gainerakoak ere prezio ortara jaxki beharriean gerta baietz nahiz-eta 12an edo 14ean saltzen ari.

Eta ez pentsa ori egitea oso zailla litzakenik, amarretatik bederatzitan ez litzake ehunen beharrik, aski lirake 20 edo 40 baserriar.

Beraz kalean saltzen duzuenon esnearen prezioari ere, erasaten dio zuzenean edo zeharka ministroen batzarrean artu dan erabakia.

Aurretik ez ezik, periodikuetan ministroen batzar ortan zer erabaki dute eta esnearen prezioak zer-nolakoak izango diran agertu ondoren, badira igo dala esaten dutenak; badira lehenean jarraitzen duela diotenak; baita jaxki egin dala diotenak ere. Denak dute arrazoi, nondik begiratzeko zaiot!

Igazko salneurriak aukeratu ziran:

Gutxienez ordaindu beharrezkoa, udaberri eta udarako	7,50 pta.
Udazken eta negurako	8,50 pta.
Zentralak ala nahi badu gehitu zezakena	0,75 pta.

Aurtengoak, berriz, aukeratu ziran:	
Gutxienez ordaindu beharrezkoa, udaberri eta udarako	7,75 pta.
Udazken eta negurako	8,75 pta.
Zentralak ala nahi badu gehitu dezakena	0,50 pta.

Arrazoi dute, beraz, esnea garestitu egin dala diotenek; igazitik aurtena, gutxienez ordaindu beharrezko ori 0,25 igo baita.

Arrazoi dute lehenean gelditu dala diotenek ere. Zentralak ala nahi badu paga dezakena, igaz eta aurtun berdinduna baita.

Emengo zentralak gutxieneko prezioa ez ezik, berak nahi badu gehitu dezakeen iru errealeko ori ere erantsita, aritu dira pagatzen. Beraz baserriarrik ez zaio preziorik igotzen eta onen seinalerik garbiena: zentralak, saltzeko igazko prezio berberak dituztela, da; kaleko erostunari ere, ez baitzaio garestitzen.

Arrazoi dute esnea jaxki egin dala diotenek ere. Batetik otsailaren azkenera arte 9,25 kobratzen ari izan direlako, eta martxoaren aseratik, gehienaz ere 8,25 kobratuko dutelako.

Eta gainera nor esaten die, igaz bezala 8,25 kobratuko dutela aurtun ere? edo beste era batera esanda: zentralak bere esku daukan bi errealeko ori erantsita, ordainduko diela?

Nik ez nuke baietzuan lepoa jokatuko. Izan ere igazitik aurtuna esne kontuan gauzak asko aldatu dira: eskas izatetik, gehiegi biltzera pasa gera.

Azken bolada ortan behintzat, Euskal Erriko iru kooperatibak bakar bakarrik ziran (eta auen kompetentziak behartzen dituelako emen esnea biltzen dutenak) zentralaren esku utzitako iru errealeko ori, oso osorik pagatzen zutenak.

Espania barruko gainerako zentralak aspaldi utzi zioten eraskin ori pagatzeari.

Emengo zentralak ere, beste guztiekin kompetentzian, saldu beharko dutela pentsatu ezker, segituko ote dute ori pagatzen?

Berriz ere joko du lanua baserriarrek eta arrazoiarekin. Gauza guztiak gora eta gora, eta esnea lehenean edo merkatu!!!

JOSE ALKIZA

B E R R I A K

ANKA MINA

Feriak itxita oinbeste denboran enki ondoren, irekita berehala nafarmina ekarri digute Santandertik. Berrero feriak itxi dira, eta jaxki, ganadu joknak galerazi.

Aurreko bi ilabetetan baino gehiago zabaldu da egun bakar batean Santanderetik etorri diren behiekin. Alere ez dut uste jendeak dion aibat ganadutara zabaldu denik; zurrumurrak urrutia gogozten eta aundiagotzen joaten dira eta baserriarrek belarriak tente dauka oraintxe.

Andik ganaduak ekarri zituztenek, ordea, bildur baitziran, ez zituzten behiok ikulluan sartu eta beste ondoan jarri. Eskerrak orri. Baserri bat eta bi baino gehiagotan, etxeko ganaduak kutsatu gabe, eutsi ahal izan diote gaitzari.

PENTSUA MERKATU DA OSTERA

Urteberritan pentsua garestitu egin zan, proteinak erruz garestitu ziralako. Orri ontan bertan esaten nizuene, pentsuak behar dituen proteina oiek, arrai iriñez eta sojaz osatzen direla batipat. Arrai iriñaren konturik ez du orain inork aipatzen, Peruko arrantzaleek ordian bezain gutxi atzematen dute nonbait. Soja kontua, ordea, barra barra dabil.

Soja Iparameriketara egiten da edo ango konpainiek kontrolatzen dute behintzat munduan egiten dan guzia. Soja ori, olio fabrikek erosten dute olio egiteko, eta gero, gelditzen dan ondakia ganadu pentsutarako erabiltzen da.

Joan zan urteko abuztura arte 8-9 peza pagatzen zan kiloa, baino gero, igotzen asi bazan asi, 18 peztaraino joan zan.

Pentsu fabrikek, ezin bestean, ganaduzaleei pentsua garestitu zieten, baino ori baino lehen gobernari eskatu zioten, kanpotik zertorren soja ori, primatu zezala. Orain arte gobernari ez zuen orren erantzunik eman, baino orain F.O.E.P.P.Ari eskubidea eman dio 120.000 tonelada soja irin, kiloko 11 peztan erosi ahal izateko lain, primatzeko.

Arnasa barrerarik atera zaie zenbait oillategi jaberri au jakin du-

tenean, estuasun latza zeukaten da.

Oinbestez esana dago, pentsuak merkatu dirala edo merkatuko dirala. Seguru asko, ez urteberritan igo ziran aña, baina pixkak ere asko esan nahi salneurri auetan. Pentsu fabrikek, zenbatean izango dan kontuak ateratzeko betarik gabe, eman diete berria beren erosleel.

Danak ez dira albiste txarrak.

ZERRI ARAGIA

Barcelonako «Camara Oficial sindical agraria»-n bildu ziran zerri azitzen ari diren ganaduzaleak, eta kanpotik zerri aragia ekartzearen kontra dandela, azaldu zioten gobernari.

Zerri aragiak orain egiten duen prezioari buruz, kiloko 72-73 pta. kanalean, oinbeste behar duela esan zuten; baino merkatuaren egoerari begiratuta, 1973 urtean, zeharo merkatuko dala zerria, kanpotik ekartzea galeratzen ez bada. Prezioa ortik gora abiatuko balitz ere, kanpotik ekartzen asterako, barruan zer eta zenbat dagoen ikusi behar dala aurrena, eta ez dilla kanpotik ekarri ganaduzaleen sindikatuak ontzat eman gabe.

Ez dakit gobernari kasorik egin dien ala ez ganaduzale auei. Dana dala, arrezkeru atera dan debeku bat dalata, galerazia dago gaur gaurkoz kanpotik zerri aragia ekartzea.

ARRATOIAK JAN?

Pentsua garestitu dan ontan, lehen ez zekienak ere, entzun du proteinak itza. Behi, oillo eta zerriztat behar beharrezkoak dira proteinak, baita gizonontzat ere.

Afrikako zenbait tribuk, arratoi aundiak, tximuak, muskerak, su-gangillak eta abar janz bereganatzen dituzte delako proteina oiek.

«Zibilizatuta» gaudenoi nazka emango liguke arratoiak, muskerak eta olako zikinkeriak jatea. Baina probatu duen batek ala dio: Nik, neronek ere, jan dut arratoi aundi oien aragia eta ez da txarra, gusto ona artzen zaito, zerriaren antzeko dala, esango nuke.

Orain gertatzen dana da, pizti

oien ehizean jende gehiegi asi dala eta basapiztiok urritzen eta ahitzten ari direla. Lehen, auker janz proteinak artzen zituzten tribu aiek, xomorro, matxinsalto eta karakolak jan beharrean gertatu dira.

Azterketa oiek egiten izan diran jakintsuen iritziz, ango agintariak neurriak artu behar litzukete, basapizti oiek zeharo gal ez ditezen. Ortarako zenbait abere ezitzen eta gobernatzeko erakutsi behar litzukete ango jendeel, izan dezaten aragia jateko. Bestela laster ez ehi-zerik eta ez beste abererik gabe geldituko omen dira.

Tripa zahar onek lanak ematen dituela gero!

UR GARBIA

Oria ibaia ez ezik munduan beste asko ere zikinduta eta pozoituta daude nonbait. Gero eta zaillago da edateko ur garbia topatzen. Lur azpiko urak ere, ez omen dira danak ain garbi, azala artaraino zikindu dugularik, azpira ere sartu egiten zaito zenbait kutsu.


Holandan edateko uraren % 60 Rhin ibaietik ateratzen dute, eta zenbait holandar kexu omen da, berak edaten duen ura, lehen beste zortzi pertsonaren zikinak garbitzen erabiltza dalata.

Iparraldeko nazioak, berriz, zertan asiko eta naziotik kanpora ur garbia saltzen asi dira. Noruegako Hafslund eziza «ana-Sira» ibai ur garbia tanketan sartu eta Holandara saltzen asi da. Konpani au 48 kilometroko tunel bat egin nahiaz dabil, ibai ortako ura tankeak betetzeko takiraino errez eta eroso eramateko. Bere asmoak ondo ateratzen bazaizkio, urtean 320 milloi litro salduko omen ditu Holandan bakarrik.

Sueziako beste bi gizonek, berriz, «circulo polar artiko» delakotik ur-bil 150 metro behera dagoen osin batetik ateratzen dute ura, plastikozko ontzi txikietan sartu esnea bezala, eta Europa guztian saltzeko asmotan dira.

Ezeren kutsurik ez duen ur garbi garbia uraxe bakarrik omen da munduan. 100 milla dolar eraldi dituzte ur-fabrika ori montatzen.

Londresen egin duten erakusketan batean, jendea kolan, illara luzean, ur trago bat edategatik... zenbait moxkorondok ikusi balitu!



Pentsua merkatu da